

Gizarte-langintzaren lanbideari buruzko ikerketen errebisioa

Kontxesi Berrio-otxoia eta Ainhoa Berasaluze
EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakasleak

Artikulu honek jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-langintzaren errealitate profesionalari buruzko ikerketa abiatzeko hastapenetan egindako miaketa bibliografikoaren eta dokumentuen azterlanaren emaitzak. Zehazki, gizarte-langintzaren lanbidea aztergaitzat izan duten ikerketak erabili ditugu. Lortutako emaitzak estatu espainiarreko gizarte-langintzari buruzko produkzio zientifikoaren gutxi gorabeherako argazkia ere badira, eta bidenabar, gizarte-langintzaren jakintza-arloan interes- eta kezka-iturri den gaira garamatzate: ikerketa zientifikora eta jakintzaren sortze-lanera.

This paper presents the results of an exhaustive bibliographical review and documentary analysis made on the context of an initial phase of a research on the Social Work's reality. Specifically, we have made an analysis of researches that have taken this Profession as research object. At the same time, the results introduce us in a topic that has got a great interest in the Discipline, as the scientific research and the construction of knowledge. Finally, it would be the photography of the Social Work's scientific production in the Spanish State.

Atarikoa

Honako artikulua hau 2005. urtean egindako hustuketa bibliografiko zabal baten emaitza da. Artikulu honen egileek hainbat ikerketa-proiektu taxutu dituzte azken urteotan, eta aipatu hustuketa bibliografikoa ere, beraien lan-eremuan bultzatu nahi duten ikerketa-lerroaren lehen urratsa izan da.

Hasiera-hasieratik askotarikoa izan da lan-lerro hau eta hainbat ikerketa-proiektu biltzen dira bere baitan, zeintzuek ikerketa-objektutzat, besteak beste, honako gai hauek dituzten: gizarte-langileen profil sozio-profesionala, lanbideari lotutako bizipenak eta pertzepzioak, gizarte-langintzako diplomatura bukatutako pertsonen balorazioak eta beraien estrategia formatibo-profesionalak, gizarte-langintzaren eremu profesionaleko ikerketa-estrategiak, eta abar¹.

Miaketa bibliografikoaren eremu geografikoa estatu espainiarra izan da, eta miatutako lanen denbora-tartea 1985. urtetik 2005. urtera bitartekoa izan da. Miaketa-lanaren bidez izaera ezberdineko idatziak bilatu nahi izan dira:

- Gizarte-langintzaren lanbideari buruzko edota gizarte-langileei buruzko ikerketak.
- Lanbideari buruzko hausnarketa teorikoak.
- Ikusmolde metodologiko kuantitatiboarekin eta galdesorta bidezko informazio-bilketarekin aztertutako aldagaiak.

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) gizarte-langintzaren lanbidearen azterlana eta diagnostikoa egitea helburu duen ikerketaren harira ekin zaio bibliografia miaketa-lan honi. Ikerketa sustatu dutenak izan dira, batetik, EAEko gizarte-langintzan diplomatutako elkargo profesionalen jakinahiak², eta bestetik, UPV/EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako³ bi irakasleren⁴ ahalegina eremu profesionalaren eta formazio-eremuaren artean zubiak eraikitzeko. Ikerlanaren helburu zehatza litzateke ezagutzea zein den gizarte-langileen profil sozio-profesionala eta, orobat, zeintzuk diren formazio-eremuaren eta lan-eremuaren beharrak, honako helburuak lortzeko asmoz:

- Formazioaren eta lan-eremuaren errealitatera doitutako ezagutza izateko.
- Elkargo profesionalen lan-ildoak egoki bideratu ahal izateko.

1. Egun artikulua honen egileek *Agencia Nacional de la Calidad y Acreditación* erakundeak sustatutako "Programa de Evaluación Institucional" barneko bi Hobekuntza Ekintzen garapenean dihardute lanean Gasteizko Gizarte Langintza Eskolan. Aipatu Hobekuntza Ekintzak ere ikerketa-ildo beraren barnean kokatuta daudela. Lehen Hobekuntza Ekintzaren helburua da ikertzea zein neurritan lortzen den formazio-programaren helburuak betetzea. Bigarren Hobekuntza Ekintzaren aztergaia egresatutako pertsonen laneratzearen inguruko problematika ezagutzea da.

2. EAEn Gizarte Langintzan diplomadunen hiru Elkargo Ofizial daude, Lurralde Historiko bakoitzeko bana.

3. EAEko Gizarte Langintza Unibertsitate Eskola publikoa Arabako campusean dago, Vitoria-Gasteizen.

4. Artikulu honen egileak.

- Titulazioa Europako goi-mailako irakaskuntza-eremura egokitzeko prozesuan lagundu ahal izateko.
- Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Langintzaren arloan ikerketa-lerro bati hasiera emateko.

Hautatutako ikerketa-objektura hurbiltzeko, edozein ikerketa-prozesuren lehen urratsa izan ohi da berari buruzko lanak biltzea eta miatzea. Horixe izan da gure abiapuntuko lana ere, eta berari esker lortu dugu gizarte-langintza lanbidearen errealitatera hurbiltzea estatu espainiarrean gai honi buruz egin diren ikerlanetan oinarrituz. Esan liteke gainera agertzen dugun azterlana gizarte-langintzari buruzko produkzio zientifikoaren argazki edo adierazlea dela nolabait. Hain zuzen ere, bilketa- eta aztertze-lan honen emaitzak dira artikulu honetan aurkezten ditugunak.

Gizarte-langintzaren lanbideari buruzko ikerketak

Gure ikerketaren aztergaia kontuan hartuta (*EAEko egungo gizarte-langintzaren lanbidearen diagnostikoa*) eta, hain zuzen ere, bibliografia bilatzeko eta aztertze lanaren helburua ikerketa bera prestatzea eta taxutzea izanda, gizarte-langintzaren lanbideari buruz estatu espainiarrean egindako gizarte-ikerketen berri ematea izan da helburua.

a. Miatutako iturriak

Ikerlanaren abiapuntua izan den idatzizko agirien miaketa-lan zehatza egiteko artxiboak, idatzagiriak, estudioak, datu-baseak eta ikerketak izan dira gure informazio-iturriak.

Nabarmendu gura genuke gizarte-langintzazko aldizkari espezializatuen miaketa-lan zorrotza egin dugula. Bereziki tentuz miatu ditugu aldizkariok uste baitugu informazio-iturri sekundario osatuena direla, hau da, berauetan jasotzen direla gizarte-langintzaren inguruko berri esanguratsuenak. Estatu espainiarrean gizarte-langintzari buruzko aldizkari espezializatuen artean garrantzitsuenak eta eragin handienekoak diren hamar aldizkarien zenbakiak banan-banan aztertu dira, 1985. urtetik 2005. urtera bitartekoak. Ondorengo taula honetan agertzen dira azertutako aldizkarien izenak eta erakunde⁵ argitaratzaileak.

5. Aipatu beharra dago, zenbaki batzuk ezin izan direla aztertu, dela agortuta egoteagatik, dela erabilitako liburutegi zein dokumentu-zentroetan eskura ez izateagatik.

ALDIZKARIAREN IZENA	ERAKUNDE ARGITARATZAILEA
1 ➤ <i>Acción Social</i>	Gaztela-Mantxako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala
2 ➤ <i>Alternativas Cuadernos de Trabajo Social</i>	Alacanteko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola
3 ➤ <i>CABS Cuadernos Andaluces de Bienestar Social</i>	Granadako Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola
4 ➤ <i>CTS Cuadernos de Trabajo Social</i>	Madrilgo Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola (Complutense)
5 ➤ <i>Documentación Social Revista de estudios sociales y de sociología aplicada</i>	Cáritas Española
6 ➤ <i>DTS Documentos de Trabajo Social. Revista de Trabajo Social y Acción Social</i>	Málagaako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala
7 ➤ <i>Portularia Revista de Trabajo Social</i>	Huelvako Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola
8 ➤ <i>Revista de Servicios Sociales y Política Social</i>	Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra
9 ➤ <i>RTS Revista de treball social</i>	Kataluniako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala
10 ➤ <i>Trabajo Social Hoy</i>	Madrilgo Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala

b. Miaketa bibliografikoaren emaitzak

Zedarritutako ikergaiari buruz aurkitu dokumentu idatzietatik alboratu egin ditugu, gizarte-langintzari buruzkoak izanda ere, ikerketa primarioaren berezko baldintzak betetzen ez zituztenak⁶; hartara, alde batera utzi dira ikerketa-lanak izan ordez, berrikuspen bibliografikoetatik sortutako ekarpenak edo hausnarketak jasotzen zituzten dokumentuak. Irizpide berari jarraituz, alboratu dira ere, ikerketa gizarte-langintzaren arlokoa izanagatik, ikerketa-populaziotzat gizarte-langileena hartu ordez, bestelako populazioak lehenesten zituzten ikerketak⁷. Aitzitik, aintzat hartu ditugu nolabaiteko hurbilketa enpirikoa duten lanak, gizarte-ikerketaren fruitu ez badira ere.

Iturriak miatutakoan hauexek dira aurkitutako ikerketak, argitaratze-urtearen hurrenkeran:

1. Vázquez, J. M. (1971): *Situación del Servicio Social en España*, Instituto de Sociología Aplicada, Madril.
2. Estruch, J. eta Guell, A. (1976): *Sociología de una profesión. Los asistentes sociales*, Península, Bartzelona.
3. Pardavila, B. eta Esnal, M. (1985): "Unos datos sociolaborales básicos de los trabajadores sociales-asistentes sociales", *Servicios Sociales y Política Social*, **3**, 74-85.
4. Beltri, F. eta Porcel, A. (1986): "Notas sobre la formación permanente de los asistentes sociales en Cataluña", *Revista de treball social*, **103**, 113-117.
5. Llovet, J. J. eta Usieto, R. (1990): *Los trabajadores sociales. De la crisis de identidad a la profesionalización*, Popular, Madril.
6. Rubí, C. (1992): "Formación y Mercado de Trabajo", in *7º Congreso Estatal de Diplomados en TS y AASS: La intervención profesional en la Europa sin fronteras*, Kataluniako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala, Bartzelona, 169-179.
7. Torres Gómez de Cádiz, B. eta beste (1996): *Principales razones y consecuencias del <burnout> en los profesionales de los servicios de bienestar social de la C.A.V.: posibles vías de solución*, Documentos de Bienestar Social, 62, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
8. Castillo, M^a A. eta beste (1996): "Investigación sobre los intereses de formación de los Colegiados", *Trabajo Social Hoy*, **12**, 82-89.
9. Martín, M^a del Carmen eta beste (1996): "Satisfacción laboral de los trabajadores sociales de la provincia de Málaga (I)", *Documentos de Trabajo Social*, **8**, 15-27.

6. M^a José Rubio eta Jesús Varas egileek azaltzen duten bezala «las investigaciones primarias son aquellas en las que la información es obtenida de primera mano por el equipo investigador para la investigación original» (2004: 362).

7. Era berean, alboratu ditugu ere, burututa egon arren, oraindik argitaratu gabe daudenak, esaterako, José Manuel Barbero-k egindako lana.

10. Kataluniako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala (1997): *Els diplomats en treball social i assistents socials de Catalunya: situació, perfil i expectatives*, Hacer, Bartzelona.
11. Pellegrero, N. eta Mestres, M. (1997): “Los trabajadores sociales de atención primaria en salud mental”, *Revista de treball social*, **145**, 132-139.
12. Banda, T. eta beste (1999): “Investigación sobre la ocupación profesional de los trabajadores sociales”, *Cuadernos de Trabajo Social*, **12**, 107-136.
13. Colom, D. eta Joyera, L. (2000): *La motivación-desmotivación de los trabajadores sociales*, Materiales de trabajo, 60, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril.
14. Giménez, V. M. (2000): “El fenómeno del *Burnout* en las profesiones de ayuda, estudio experimental de la situación en centros sociales municipales de la ciudad de Alicante”, *Revista de treball social*, **159**, 65-102.
15. Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra (2001): *Aproximación a la realidad profesional y formativa de los trabajadores sociales*, I. eta II. lib. [Argitaragabea].
16. Plaza, E. eta Gil, M. (2003): “Trabajo social hospitalario. Análisis de la evolución de las funciones de los trabajadores sociales”, *Trabajo Social Hoy*, **40**, 143-167.
17. Fernández, B. (Koord.) (2003): *Estudio sobre los/as trabajadores/as sociales que ejercen la profesión en Navarra*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa [Argitaragabea].
18. Colectivo de trabajadores sociales de Fuencarral-El pardo (2004): “Hacia dónde vamos después de dos décadas”, *Trabajo Social Hoy*, **41**, 193-200.
19. Morán, J. M. eta Gómez, A. M. (2004): *Intervención metodo-lógica en trabajo social. Estrategias de intervención y contexto en Trabajo Social*, Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra eta Certeza, Zaragoza.
20. Vázquez, O. (Koord.) (2004): *Libro Blanco, Título de Grado en Trabajo Social*, ANECA.
21. Vitoria-Gasteizko Sindikoa (2005): *2003-2004 Txostena*.
22. Conde, J. A. (2005): “El rol del trabajador social: consideraciones psicosociales para la innovación de rol”, *Trabajo Social Hoy*, **44**, 125-146.
23. Valentziako Gizarte Langintzan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala (2006): *Encuesta Colegiados 2005*, Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra [Argitaragabea].

c. Aztertutako aldagaiak

Gure intereseko ikerketa-objektuari buruzko lanek eskainitako informazioaren azterketa, edozein ikerketa-prozesuren abiapuntua ez ezik, bere horretan ikerketalan bat ere izan liteke, ikerketa sekundarioa deritzon ikerketa mota hain zuzen.

Artikulu honetan aurkezten den ikerketa sekundario honek argitaratutako ikerketak miatzerakoan, M^a José Rubio eta Jesús Varas-i jarraituz (2004), zenbait alderdi aztertu ditu, hala nola:

1. Metodologikoak: ikerketa-lanen hurbilketa metodologikoa argitzeko.
2. Teorikoak: ikerketa-objektuaren definizioak eta azalpen teorikoek nolako bilakaera izan duten argitzeko.
3. Deskriptiboak: ikerketa bakoitzak nola deskribatzen duen fenomenoaren eza-gutzeko edota nola joan den eraldatzen eta zein datu gordin eskaintzen duen jakiteko.
4. Gaien ingurukoak: ikergaiari buruz egindako estudioak sistematizatzeko, argitaratze-data zehazteko, eta abar.

Hemen, jorratu ditugun alderdiak adieraziko ditugu, zeintzuek, azken batean, gizarte-langintzazko ekoizpen zientifikoaren eta beronen ezaugarri nagusien hurbilketa egitea ahalbidetzen diguten.

Gai zehatza

Egileak

Eremu geografikoa

Planteamendu metodologikoa

Argitaratze-urtea

Argitalpen mota

Luzera

Erakunde sustatzailea

- *Gai zehatzak*: aldagai honi dagokionez, bi kategoriatan bereizi ditugu ikerketak; alde batetik, gure ikergaia era orokorrean jorratzen dutenak (lanbidean aritzea), eta bestetik, ikergai nagusi horren barneko azpigai zehatz bat jorratzen dutenak (lanbidearen arazoak, etengabeko formazioa, etab).
- *Egileak*: ikerlanen egiletza motaren arabera sailkapena egiten ere ahalegindu gara. Sailkapen mota bat izan da bereiztea erakundeek egin dituzten ikerketak eta pertsona fisikoek egindakoak, azken horien kasuan bakarka egindako lanak eta ikerketa-talde batek egindakoak bereizi ditugu. Gainera, genero-ikuspegiari erreparatuz, pertsona fisiko horiek gizon ala emakumeak diren aztertu da.
- *Eremu geografikoa*: ikerketaren mugatze geografikoaren arabera sailkapena eginez, ikerketak estatu espainiar osoan egindakoak diren ala eremu geografiko txikiagoetan eginak diren bereizi da.

- *Planteamendu metodologikoa*: gizarte-langintzaren lanbidearen errealitate sozialetara hurbiltzeko bide metodologiko ezberdinak har daitezke. Hurbilketa metodologiko kuantitatiboa eta kualitatiboa lirarteke gizarte-ikerketak bideratzeko metodologia nagusiak. Gizarte-langintzari buruzko ikerketetan bide kuantitatiboa, kualitatiboa ala biak uztartuta erabiltzeko irizpidearen arabera antolatu ditugu ikerketak. Horrez gain, metodologia bati zein besteari jarraitu dieten ikerketek informazioa biltzeko erabili dituzten teknikak zehazteko ahalegina egin da.
- *Argitaratze-urtea*: aztertutako ikerketa bakoitza zein urtetan argitaratu den miatu da. Argitaratu ez diren ikerketak denboran kokatu ahal izateko, ikerketa zein urtetan egina den agertzen da.
- *Argitalpen mota*: ikerketa-lanak argitaratu diren ala ez bereizteaz gain, argitaratutako ikerketen emaitzak zein formatutan argitaratu diren aztertu dugu, hau da, aldizkari espezializatuetaiko artikulua diren, kongresuko komunikazioak, monografiak, etab.
- *Luzera*: argitaratutako ikerketen orri kopurua aztertu da. Gizarte-langintzari buruzko ikerlanaren emaitzak publikazio zabalago baten baitan sartzen direnean, gure intereseko gaiei eskainitako orri kopurua zenbatu da soilik.
- *Erakunde sustatzailea*: kaleratutako dokumentuak zehazten duenean, ikerketa egin ahal izateko laguntza, ekonomikoa nahiz bestelakoa, eman duten erakundeak zeintzuk izan diren aztertu da ere.

d. Azterlanaren emaitzak

Lana	Aztergai zehatza	Egileak	Eremu geografikoa	Planteamendu metodologikoa	Argitaratze-urtea	Argitalpen mota	Luzera	Eraikunde sustatzailea
1	Gizarte Langintza eta Gizarte Langileen arazoak Espainian	Jesús María Vázquez (zuzendaria)	Espainia	Kuantitatiboa (galdesorta)	1971	Monografia	377	FOESSA Fundación Fomento de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada
2	Gizarte Langintza lanbidetaren analisi soziologikoa	Estruch Juan, Antonio M. Güell	Katalunia	Kuantitatiboa (300 galdesorta)	1976	Monografia	270	
3	Datu sozio-laboralak	Balbino Pardavila, Mikel Esnal	Espainia	Kuantitatiboa (3752 galdesorta)	1985	Artikula <i>Servicios Sociales y Política Social</i> aldizkaria	12	Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra
4	Etegabeko Prestakuntza	Francesc Beltri, Amparo Porcel	Katalunia	Entitate Erberdinen 100 prestakuntza-eskaintzen analisia	1986	Artikula <i>Trabajo Social</i> aldizkaria	5	
5	Prestakuntza eta Lanbidea	Juan José Llovet, Ricardo Usieto	Madrilgo Erkidegoa	Kuantitatiboa (galdesorta)	1990	Monografia	188	Madriigo Elkargo Ofiziala
6	Lanbidetaren aritzea eta profila	Carmen Rubi	Katalunia	Kualitatiboa (elkarriketa)	1992	Artikula <i>Gizarte Langintzan Diplomadumen eta Gizarte Laguntzaileen 7. Biltzarra</i>	11	
7	“Burnout”-aren arazoak eta ondorioak	Bárbara Torres, Cristina Achucarro, Cristina Herce, Ana M ^o Rivero	Euskal Autonomia Erkidegoa	Kuantitatiboa (381 galdesorta)	1996	Monografia <i>Documentos de Bienestar Social</i> aldizkaria	95	Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saila
8	Elkargoko kideen prestakuntza-interesak	M ^o Auxiliadora Castillo, Ruth García, Isabel López, Jorge Velásquez, M ^o Fernanda Villegas	Madrilgo Erkidegoa	Kuantitatiboa (galdesorta)	1996	Artikula <i>Trabajo Social Hoy</i> aldizkaria	8	Madriigo Elkargo Ofiziala
9	Asebetetze laborala	M ^o del Carmen Martín, M ^o del Carmen Radial, Rosario Romero, Rocío Serrano	Malagako Probintzia	Kuantitatiboa (galdesorta) Kualitatiboa (eztabaia-taldeak)	1996	Artikula <i>Documentos de Trabajo Social</i> aldizkaria	14	

10	Gizarte Langilearen egoera, profila eta nahiak	Progress, SL	Katalunia	Kuantitatiboa (400 galdesorta elkargokideei eta 877 biztanleria osorari)	1997	Monografia Artikuluha <i>Servicios Sociales y Política Social</i> aldizkaria	173 6 2	Kataluniako Elkargo Ofiziala
11	Gizarte Langileen funtzioak buru- osasuneko zerbitzuetan	Núria Pellegero, Montserrat Mestres	Bartzelona (probinzia)	Kuantitatiboa (elkarrizketa)	1997	Artikuluha <i>Treball Social</i> aldizkaria	8	
12	Okupazio Laborala	Trinidad Banda, Cinta Martos, Francisco J. Paniagua, M ^o Josefa Vázquez	Huelva	Kuantitatiboa (galdesorta)	1999	Artikuluha <i>Ciudadanos de Trabajo Social</i> aldizkaria	29	Huelvako Gizarte Langintzako Umibertsitate Eskola
13	Asebetetze laborala eta motibazioa lehen mailako arreta-zerbitzuetan	Dolors Colom, Luis Joyera	Aragoi, Extremadura eta Galizia erkidegoak	Kuantitatiboa (579 galdesorta)	2000	Monografia Materiales de Trabajo 60. zenbakia	71	Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa
14	"Burnout"- en fenomenoak lehen mailako arreta-zerbitzuetan	Victor Giménez	Alacant	Kuantitatiboa (galdesorta)	2000	Artikuluha <i>Treball Social</i> aldizkaria	38	
15	Prestakuntza eta Lanbidearen egoera	Agora Institutua	Espainia	Kuantitatiboa (dephi galdesorta) Kualitatiboa (sakonko elkarrizketa eta talde-elkarrizketa)	2001	Argitaragabea	460+ eranskimak	Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra Madrilgo Udala
16	Gizarte Langilearen funtzioak ospitale-eremuan	Eva Plaza, Manuel Gil	Madril	Kualitatiboa (elkarrizketa irekia)	2003	Artikuluha <i>Treball Social Hoy</i> aldizkaria	26	
17	Lanbidean aritzea	Blanca Fernandez (Koord.)	Nafarroako Autonomia Erkidegoa	Kuantitatiboa (galdesorta eta elkarrizketa)	2003	Argitaragabea	104	Nafarroako Elkargo Ofiziala Nafarroako Umibertsitate Publikoa

18	Lanbidean aritzea	Colectivo de trabajadores sociales de Fuencarral-El Pardo	Madridgo Fuencarral-El Pardo udal-barrutia	Kuantitatiboa Kualitatiboa	2004	Artikuluak <i>Trabajo Social Hoy</i> aldizkaria	8	
19	Esku-hartze motak	Jose M ^a Morán Cárrillo, Ana M ^a Gómez Pérez, Clemente Navarro	Sevilla (probintzia)	Kuantitatiboa	2004	Monografia Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra	145	Sevillako Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola (Pablo de Olavide)
20	Prestakuntza Gizarte Langintzan	Octavio Vázquez (Koord.)	Espainia	Kualitatiboa Kuantitatiboa (galdesorta)	2004	Monografia digitala Liburu Zuria	410	ANECA
21	Lanbidean aritzearen balorazioa	Vitoria-Gasteizeko Sindikoa	Vitoria- Gasteizko Udala	Kuantitatiboa (27 galdesorta)	2005	2003-04 Txostena	8	Vitoria-Gasteizko Udala
22	Eginkizumak	Jorge A. Conde	Salamanca (probintzia)	Kuantitatiboa (galdesorta)	2005	Artikuluak <i>Trabajo Social Hoy</i> aldizkaria	22	
23	Elkargo Ofizialari buruzko iritzia	Valentziako Elkargo Ofiziala	Valentziako Erkidegoa	Kuantitatiboa (220 galdesorta)	2005	Argitaragabea	15	Valentziako Elkargo Ofiziala

Ondorioak eta hausnarketarako bideak

Egindako azterlanaren azken helburua, aurrez esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-langintzaz bideratu nahi den ikerketaren informazio-bilketarako galdesorta taxutzeko datu-bilketa egitea izan da, galdesorta bidez jasotako datuekin gizarte-langintzaren errealitate profesionalaren berri zehatzagoa eskuratzeko xedearekin.

Gizarte-langintzaz estatu espainiarrean egindako ikerketen azterlanean kontuan hartu ditugun aldagaiak behin definituta, azterlanaren emaitzak agertuko ditugu, ondorioak nahi bezain argigarriak ez badira ere, sustatu nahi genukeen hausnarketarako abiapuntu izan direlakoan.

Zehaztutako bi *gai-kategoriei* erreparatuz, ikerketen % 17k (4 ikerketa) intereseko ikergaia era global edo orokorrean jorratzen du; % 83k (19 ikerketa), aldiz, azpigai zehatzak lantzen ditu. Azken horiek gizarte-langintzaz jorratzen dituzten alderdiak ondokoak dira: formazioa, profil profesionala, asebetetze laborala, profesioaren ezartzea, lan-esparruak, esku-hartze motak eta gizarte-langintzako profesionalen jarduerak eta funtzioak. Miatutako ikerketa gehienak lanbideari buruzko aspektu zehatzak ikertzeraz mugatzen dira. Horren arrazoia, gizarte-langintzaren lanbidea era integralean jorratzeko konplexutasuna eta ondorioz, eremu murriztagoko ikerketak gauzatzea izan liteke.

Ikerketen *egileei* erreparatuz gero, ikusenez ikerketen % 17 (4 ikerketa) erakunderen batek egin dela eta gainerako % 83 (19 ikerketa) pertsona fisikoek egin. Datu hauen argitan esan liteke urria izan dela gizarte-langileak kontratatzen dituzten erakundeen kopurua, publikoak nahiz pribatuak. Beraz, berauek langileen lan-baldintzei ez dietela behar besteko arretarik eman ondoriozta daiteke.

Ikerketen egileak pertsona fisikoak direnean, kasuen % 13an (3 ikerketa), pertsona bakarra da egilea eta gainerakoetan, % 87an (20 ikerketa), taldeek burututakoak dira. Ikerketak talde-lanean oinarritzeak logikoa dirudi, kontuan hartuz ikerketa-jarduera ez dela ohikoa lanbidearen eginkizunen artean eta, horrela izanik, ohiko eginkizun eta lanorduz kanpoko denez, esfortzu gehigarria eskatzen du. Ikerketak taldean eginak izatea ulertzen lagun dezaketen bestelako faktore batzuk ere izan litezke: batetik, gizarte-langintzako profesionalen formazio urria ikerketa-arloan⁸ eta, bestetik, ikerketa-prozesuen berriazko izaera, bideragarriagoa eta eutsigarriagoa dena, artikulua honen egileen aburuz.

Bestalde, aztertutako ikerketetan parte hartu duten 40 pertsona fisikoetatik % 57 (23) emakumezkoak dira eta % 43 (17) gizonezkoak. Neurri batean deigarria eta kontraesankorra ere bada datu hau, profesional gehienak, egun ere, emakumezkoak direla kontuan hartuz gero⁹. Baina genero-ikuspegiaren araberrako analisia

8. Zenbait egilek diotenez, ikerketak bigarren mailako tokia betetzen du ikasketa-planetan nahiz jarduera profesionalean. Esaterako, Arantxa Rodríguez Berriok planteatzen duen bezala, hainbat arrazoiaren konbinazioak eraginda, ikerketarako nolabaiteko erresistentzia dago Gizarte Langintzan (2000: 33).

9. Urrunera joan barik, honen harira aztertu ikerketetako datu batzuk: Jesús María Vázquez-ek (1971: 52) 69/70 ikasturtean gizarte-laguntzaile ikasketetan matrikulatu ikasleak % 95,9 emakumezkoak direla adierazten du, gizonezkoak % 4,1 direlarik. Juan Estruchek eta Antonio M. Güel-ek (1976: 12) hirurogeiko hamarkadaren hasieran % 99,6an zehazten dute.

eginez¹⁰, datu hau gizarte-antolamendu patriarkalaren funtzionamendu-patroiarekin bat dator; hartara, nagusitutako gizarte-eredu patriarkalean gizonak, gizon iza-teagatik, beraien lanbidean kopuruz emakumeak baino gutxiago izanda ere, estatus, botere eta errekonozimendu sozial altuen duten posizioak bereganatzen dituzte. Hori dela eta, ziurrena da gizarte-langintzaren ikerketarekin zerikusia duten jarduerak unibertsitate-eremuko pertsonen esku egotea, edo erakunde publiko zein pribatuak erantzukizun-postuetan daudenen esku, hain zuzen ere gizonezkoen esku¹¹.

Eremu geografikoaren analisiak erakusten du ikerlanen % 17 (4 ikerketa) estatu espainiar osoan egindakoa dela eta % 83 (19 ikerketa) eremu geografiko murrizagoetan egingo dela, hala nola, Katalunian, Madrileko Erkidegoan, Malagako probintzian, Alacant hirian, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Geografia mailako analisiak ikerketen % 17 (4 ikerketa) estatu espainiar osoaren ingurukoa dela adierazten du, % 83 eremu geografiko murrizagoetakoa izanik (19 ikerketa), Katalunia, Madrileko Erkidegoa, Malagako probintzia, Alacant, EAE, besteak beste. Ikerketa gehienek estatu espainiarra baino eremu txikiagoa aztertu izanak ez du esan nahi zehaztasun edo errepresentagarritasun baxuagoak direnik; ikerketen emaitzen errepresentagarritasun mailari buruzko ondorioetara heltzeko ikerketa bakoitzaren lagin-diseinuaren analisia egin beharko genuke. Hala eta guztiz ere, estatu espainiarreko zona geografiko ezberdinetako errealitate profesionalak alderdi komun ugariak dituzte¹², eta elkarren arteko konparaketa nola osagarritasuneranzko bidea ere ematen dute.

Lanen *planteamendu metodologikoari* dagokionez, % 61ean (14 ikerketa) ikuspegi metodologiko kuantitatiboa erabiltzen da, % 13an (3 ikerketa) kualitatiboa eta % 26an (6 ikerketa) bien arteko konbinazioa. Halaber, datu-bilketa egiteko bide espezifikorik ugariena galdera-sorta izan da. Horixe bera da ikerketa sozialen arloan gehien erabiltzen den ikerketa-estrategia, aztergaiaren ikerketan sakontasunaren kaltetan bada ere. Horrela izatearen arrazoi nagusiak lirerateke, batetik, bilatzen den informazioa (faktuen ageriko ezaugarriak) eskuratzeko erraztasuna eta, bestetik, galdesortaren teknika-aplikagarritasuna.

Argitaratze-urteari erreparatuz, 1971tik 2005era bitartekoak dira, laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik argitalpenen ugartzerik handiena gertatzen delarik. Argitaratutako lanak ondoz ondoko urteetan burutu dira, argitalpen-urtearen aurreko urtean.

10. Rosa Cobo-k adierazten duen bezala «El concepto de género es acuñado en el año 1975 por la antropóloga feminista Gayle Rubin y desde ese momento se convertirá en una de las categorías centrales del pensamiento feminista ... actualmente es un parámetro científico irrefutable en las ciencias sociales» (2005: 249-250).

11. Lena Dominelli eta Eileen MacLeod-en arabera «la posición de desventaja de las mujeres en la jerarquía del empleo de los servicios sociales representa la fusión de una cantidad de extendidas condiciones sociales que requieren cambios que escapan a su intención o a sus posibilidades: la responsabilidad primordial de las mujeres por el cuidado infantil, la ideología masculina de dominación y subordinación introyectada en el nivel personal y el predominio de la gestión de dirección como la forma organizativa para la cual la educación y el sistema social han destinado a los hombres desde el nacimiento» (1999: 174).

12. Dolores Colom-ek eta Luis Joyera-k hauxe diote: «las realidades de una zona a otra no son tan diferentes como se suponía en un principio» (2000: 66).

Argitalpen motari dagokionez, argitaragabeko hiru ikerketa eskuratu ditugu; honi buruz, aipatu beharra dago harrigarria dela gai eta eremu geografiko zabala hartzen dutela kontuan izanik. Gainerako hoge ikerketen artean, gehiengoak aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikulua dira (% 44, 10 ikerketa), egindako ikerketen laburpenak direnak. Aldizkari espezializatuetatik *Trabajo Social Hoy* da artikulua kopururik altuena jasotzen duena. Gainerakoak, honela banatzen dira: % 31 (7 ikerketa) monografiak dira, % 4 (ikerketa 1) kongresuetako adierazpenak, % 4 (ikerketa 1) argitalpen birtualak eta % 4 (ikerketa 1) erakunde publikoren bateko txostenaren atal bati dagokio. Informazio baliagarria litzateke jakitea egindako zenbat ikerketa ez diren argitaratu; izan ere, bakan batzuk baino gehiago izan direla pentsa liteke, argitaratutako gehienak artikulua bezala laburbildurik agertu direla kontuan hartuz. Mota honetako analisiak agerian utziko litzuke Gizarte Langintzan aurki ditzakegun zailtasunak, bai ikerketak gauzatzeko, bai lorturiko emaitzak kaleratzeko.

Argitaratu *dokumentuen luzera* aztertzeke erabaki dugu monografiaren batez besteko orrialde kopurua eta aldizkarietako artikuluen bereiztea. Monografiaren batez bestekoa 195ekoa da; artikuluen, ordea, 15ekoa. Aurreko aldagaiaren analisisan aipatu bezala, aldizkarietako artikulua lan luzeagoen laburpenak dira. Hauxe da, hitz batez, luzeraren analisiak azaldu nahi duena: 15 orrialdeko lan batek, jatorriz 195ekoa izan badaiteke ere, nekez ezagutaraziko dizkio talde zientifiko-profesionalari azterlanaren xehetasunak.

Aldagaien analisiari amaiera emateko, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi ikerketa hauek argitaratzeko lagundu duten erakundeak, guk *erakunde sustatzaileak* izendatu ditugunak. Ikerketen % 61ek bakarrik (14 ikerketa) aipatzen dute beren sustatzaile den erakundea edo erakundeak. Horren ondoan pentsa liteke, zehazki aipatzen ez dutenek ez dutela laguntzarik izan eta horrela bada, berauek gauzatzeko oztopo gehigarria lekarke.

Erakunde sustatzailea zehazten duten ikerketei erreparatu, Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra nabarmentzen da % 35ekin (8 ikerketa) eta Gizarte Langintzako Eskolak % 13ekin (3 ikerketa). Hemen azaldu datuek egileen aldagaiaren arloan adierazi dugun ondorioa sendotzen dute, hots, gizarte-ongizateko erakundearen ageriko interesik eza honelako ikerketak gauzatzean¹³.

Haurmerketa gisa eta eztabaida sortzeko helburuaz, azterlanak dakartzan hipotesi batzuk aurkez ditzakegu, egoera baikorrik agertzen ez dutela jakinda. Gizarte-langintzaren lanbidean aritzearen inguruko ikerketak urriak izan dira estatu espainiarrean (23 ikerketa) 1971 eta 2005 urte-bitartean; horrez gain, gauzatu ikerketa gehienak argitaratu badira ere (23tik 20), aldizkari espezializatueta artikulua-formatua eman zaie.

13. Gizarte Langintzako Eskolak %17ren erakunde sustatzaileak badira ere, ez dugu ahaztu behar inibertsitatea dela funtzio ikertzailea berezkoa duena, aipatu portzentajearen adierazgarritasuna erlatibizatuz. Egoera honen egiaztatzaileen bila, Teresa Zamanillo-k honela dio: «El Trabajo Social sigue siendo considerado un saber práctico pese a su integración en la universidad» (2000: 114).

Hipotesi hauek guztiek berrikuspen bibliografikoan planteatzen genituen helburuetako batera zuzenean garamatzate: Gizarte Langintzako egile gehienek azaltzen duten ekoizpen zientifikoaren urritasunaren planteamendua egiaztatzeko informazioa biltzera.

Estatu espainiarrean lanbidearen praktika hasiz geroztik gaurdaino beroni buruz guztira 23 ikerketa aurkitzeak egiaztatzen du planteamendu hau. Estatu espainiarrean Gizarte Langintzan heziketa unibertsitarioa 1981etik eduki arren, azken bi hamarkadetan ongizate-estatuak izan duen garapena nabarmena izan arren eta 80ko hamarkadaren ondoren gizarte-zerbitzuen sistema ezarri arren, ez da neurri bereko aurrerapenik gertatu hausnarketa eta ikerketa mailan¹⁴.

Horren ildotik, EAEn lanbidean aritzea ez da behar bezala aztertu, gizarte-langintzaren lanbidearen gaineko ikerketa-diagnostikoa egiteko interesa piztu behar da eta, zehatzago, profil sozio-profesionalaren eta hezkuntza- eta lan-arloetan dauden beharren gainekoa. Ikerketa berau informazio-biltzearen aurre-etapan dago, behin berrikuspen bibliografikoa eta galdesortaren diseinua amaiturik. Ikerketa erabat burutzea da gure helburua eta gure konpromisoa lortutako emaitzak argitaratzeko behar besteko ahaleginak egitea, ezin bestela izan aurrez azaldutako gutzia jakinda.

Bibliografia

- Cobo, R. (2005): "El género en las ciencias sociales", *Cuadernos de Trabajo Social*, **18**, 249-258.
- Colom, D. eta Joyera, L. (2000): "La motivación-desmotivación de los trabajadores sociales", *Materiales de Trabajo*, **60**, gai bakarra.
- Dominelli, L. eta MacLeoden, E. (1999): *Trabajo social feminista*, Cátedra, Madril.
- Gizarte Langileen Kontseilu Orokorra (2001): *Aproximación a la realidad profesional y formativa de los trabajadores sociales* [Argitaragabea]
- Rodriguez, Berrio, A. (2000): "La investigación en Trabajo Social", *Cuadernos Andaluces de Trabajo Social*, **8**, 33-42.
- Rubio, M. J. eta Varas, J. (2004): *El análisis de la realidad en la investigación social*, CCS, Madril.
- Zamanillo, T. (2000): "El Trabajo Social en la Sociedad de la Incertidumbre", in C. Escobar eta G. Sánchez (arg.), *El Trabajo Social en la era de la incertidumbre*, Salamanca-ko Unibertsitatea, Salamanca, Gizarte Langintzako Ikasleen I Biltzarraren Aktak, 111-115.

14. Gizarte Langileen Kontseilu Orokorrak buruturiko ikerketa batean hauxe jasotzen da: «El colectivo profesional de los Trabajadores Sociales, como objeto de estudio de una investigación, se considera un elemento novedoso en sí mismo puesto son escasas las aproximaciones a su realidad profesional y formativa» (2001: 16).

